

Salmentek Euskal AEko Merkataritzaren sektorean % 4,9 egin dute gora, 2022ko bigarren hiruhilekoan


Aurten, gaur arte, Merkataritza sektorearen salmentek % 4,8 egin dute gora, Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa sektoreak bilakaera negatiboa izan badu ere

Merkataritza sektoreak –bertan sartzen dira *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*– % 4,9 areagotu ditu salmentak 2022ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko terminoetan, prezio finkoetan eta egutegiko ondorioak atera ondoren, Eustatek dituen datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, urtaroen arabera ondorioak alde batera utzita, 2022ko bigarren hiruhilekoan salmentek % 0,7 egin dute gora.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritza, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da *Handizkako Merkataritza* eta *Txikizkako Merkataritza*, % 7,8ko eta % 4,2ko hazkuntza izan baitute, hurrenez hurren, termino finkoetan. *Motordun ibilgailuen salmentan eta konponketan*, salmentak 2021eko bigarren hiruhilekoan baino % 9,7 baxuagoak izan dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten hazkuntza % 1,5ekoa izan da *Handizkako Merkataritza*, eta % 0,8koa *Txikizkako Merkataritza*. *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* sektorean, berriz, salmentek % 5,9 egin dute behera, hiruhilekoen arteko terminoetan.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2022/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A(t) / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	4,9	0,7	4,8
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-9,7	-5,9	-8,7
Handizkako merkataritza	7,8	1,5	7,2
Txikizkako merkataritza	4,2	0,8	4,6
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	2,9	0,1	3,1
Bizkaia	7,3	1,6	6,5
Gipuzkoa	2,1	-0,3	3,0
EMPLEGUA	1,3	0,0	2,0

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Irailaren 13a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointurako indizea

Lurralde historikoen arabera, 2022ko bigarren hiruhilekoan, *Merkataritzaren* sektorean, Bizkaian, % 7,3 egin dute gora salmentek prezio finkoetan, urte arteko terminoetan, % 2,9 Araban eta % 2,1 Gipuzkoan.

2022ko lehen hiruhilekoari dagokionez, Bizkaian salmentek % 1,6 egin dute gora hiruhilekoen arteko terminoetan eta % 0,1 Araban; Gipuzkoan, salmentek % 0,3 egin dute behera.

Euskal AEko *Merkataritza* lanean ari direnen indizeak % 1,3 egin du gora 2022ko bigarren hiruhilekoan, 2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. 2022ko lehen hiruhilekoari dagokionez, enpleguari egonkor eutsi zaio.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 93,8ko babesarekin** kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62